

ELKARBIZITZA

PLANA

2014-2018

VDA. DE EPALZA

1. Sarrera
2. Elkarbizitzaren diagnostikoa gure ikastetxean.
 - 2.1. Informazio bilketa
 - 2.2. Sendotasunak
 - 2.3. Hobetzeko arloak
3. Elkarbizitza Planaren Helburuak
4. Helburuak lortzeko proposatutako jarduerak eta errekurtsioak.
5. Denboralizazioa
6. Ebaluazioa eta hobetzeko proposamenak.

1. Sarrera

Duela ikasturte batzuk gure ikastetxea hasi zen elkarbizitza lantzen gure egunerokotasunaren alderik garrantzitsuenetariko bat moduan ikusi genuelako. Lan hau, "Elkarbizitza Plana" desberdinetan joan da agertzen eta IUPetan eta IUP horiei dagozkien Memorieta garatu dira.

Azken Elkarbizitza Plana burutu zen irakasleriaren, hirugarren zikloko ikasleriaren, familien eta pertsonal ez-irakaslearen parte hartzearekin.

Honako hau da, akordioaren bitartez lortu zen elkarbizitzaren definizioa:

ELKARBIZITZA gure gaitasunen - bai banakoak, bai taldekoak- eta gure nortasunaren garapenak uzten gaituen eta gure lana egiteak errazten gaituen, giro lasai batean, besteekin bakean eta harmonian bizitzea da.

ELKARBIZITZA guztien nortasuna eta desberdintasunak errespetatzea da, gure sentimenduak eta nahiak konpartitzea, geure legezko interesak era positiboan defendatzea, besteen sentimenduak eta nahiak enpatiaz eta eskuzabaltasunez onartzea eta erlazioetan amore ematen jakitea ekitatea eta harmonia lortzeko.

ELKARBIZITZA eskola komunitatearen pertsona guztien lana aintzat hartzea eta baloratzea eta errespetu ikuspuntutik, tolerantziatik eta konfiantzatik elkarrekiko ulermena eta AKORDIOA errazten duen KOMUNIKAZIO eraginkorra mantentzea da.

Gure ustean, ELKARBIZITZA egokia lortzeko eskola komunitatea osatzen duten guztien parte hartzea eta kolaborazioa beharrezkoa da akordioetara eta konpromisoetara heltzeko eta gure erlazioak, gure jokabidea eta gure lana era argian, eraginkorren eta arinean ordenatzen dituzten ARAUAK egitea bakoitzak daukan zereginean: gurasoak, ikasleria, irakasleria, monitoreak edo eskolako langileak.

AKORDIORA heltzeko guztien arteko elkarrizketa jarrera irekiaz, tolerantiaz eta errespetuz egitea beharrezkoa da. Denek saiatu behar dute bestea era aktiboan entzuten, epaitu eta kritikatu gabe eta ahalegintzen besteen jarrera ulertzen.

GATAZKA ikasteko eta pertsonal eran hazteko aukera moduan baloratzen dugu. Horretarako alde guztiek era baketsuan adierazi behar dute eta saiatu behar dute seriotasunez arazoa ebatzen, elkarrekiko onura bilatzen eta egoera aprobetxatzen gertatutakoaz ikasteko (bai berehalako soluzioa lortzen badute, bai ez badute lortzen)

Gatazken EBAZPENAK kolaborazioan eta elkarrizketan oinarrituta egon behar du, hori dela eta, negoziatzera, entzumen aktibora eta bitartekotzara zuzendutako estrategiak erabiliko ditugu.

Geletan egin behar den gatazken PREBENTZIORAKO lana honako arlo hauek kontutan hartuko ditu: curriculumarekin erlazionaturakoak, metodologikoak, gela-talde berezko gestioak.

Egindako hausnarketatik, elkarrizketa proiektu berria garatzeko hurrengo arlo horiek lehentasunezko zat jotzen ditugu:

ELKARBIZITZA KOMUNIKAZIO on batean oinarritzen da. Horretarako eskola komunitatearen estamentu guztien **PARTE-HARTZEA** beharrezkoa da akordioetara eta konpromisoetara heltzeko eta gure erlazioak eta lana era argian arinean eta eraginkorrean antolatzen dituzten **ARAUAK** egiteko. Deritzogu **DIALOGOA** tresnarik hoberena dela es la mejor herramienta para lograr el **AKORDIOETARA** heltzeko eta **GATAZKA** ikasteko aukera bezala baloratzen dugu, baina horretarako gatazkaren **EBAZPENAK** kolaborazioan eta elkarrizketan oinarrituta egon behar du. Halaber, gure ustean, gatazken **PREBENTZIOA** gela guztietan sistematiko eran landu egin behar dela pentsatzen dugu.

Beraz, 2014-2018 urte bitarteko "Elkarbizitza Plan" berria onartzeko prest gaude, Plana, martxan dagoen Zuzendaritza Proiektuaren datarekin batera garatuko da, aurreko ikasturteetan egindako Planaren jarraipena izango da, eta gure eskolak gaur egun dituen beharren erantzuna izango da. Hezkidetzeta Plana (2013-16), beharrezkoak diren aldaketak egin ondoren, Elkarbizitza Plana amaitu arte luzatuko da.

2. Elkarbizitzaren diagnostikoa gure eskolan

2.1. Informazio bilketa

Urriaren 16an, osteguna, hurrengo pertsonekin osatutako batzorde bat elkartu zen: 5. eta 6. mailako 4 ikasle, jantokiko ordezkari bat, familien ordezkari bat (deitutako beste pertsonak ezin izan zuten etorri), zuzendaria, ikasketa burua eta Hezkidetzeta proiektuaren arduraduna.

Eskolako Elkarbizitzari buruz eta Plan berria burutzeari buruz hitz egin zen eta eskola komunitatearen estamentu bakoitzaren informazioa biltzeko erabili behar diren materialak adostu ziren.

Hiru motatako materialak erabiltzea erabaki zen: familientzako inkesta irekia egitea, haiek adierazi zezaten, alde batetik, eskolako elkarbizitzaren alde positiboak eta, bestetik, hobetzeko arloak; ikasleentzat, fitxa bat prestatzea, ikasleek sentimenduak eta bizipenak 4 arlotan adierazteko (Klasean, jolas orduan, pasabideetan eta jantokian); irakasleriarentzak, eremu desberdinetan aritzen den datu-bilketa fitxa bat egitea (Hezkuntza-politika, elkarbizitzaren antolakuntza eta kudeaketa, gatazkaren eraldaketa eta etika; parte-hartzea: emozioak, sentimenduak eta identitatea; irakaskuntza-ikasketa prozesuak eta irakaskuntza estiloa), horretan sendotasunak eta ahultasunak islatuko dira eta beste fitxa antzekoa baina apur bat laburragoa jantokiko pertsonalarentzat.

FAMILIEK esaten dute, orokorrean, eskolako elkarbizitzarekin pozik daudela, ondo lan egiten dela, giza talde on bat badagoela, eskola giroa familiarra dela eta auzoarekin lotuta badagoela, eta bortizkeria egoera larriak ez direla gertatzen. Halaber, adierazten duten zikloen artean dagoen interakzioa eta estamentu desberdinen artean dagoen laguntzeko joera gustatzen zaiela adierazten dute. Klaseetako bileren bidez eta emailen bidez jasotzen duten informazioa oso ondo dagoela ziurtatzen dute eta haien partaidetza eska diezaiegun gustatzen zaie. Eragozpenik larrienak eskolako sarreretan eta irteeretan daude egoteko lekua faltagatik eta batzuetan ikasle batzuen diziplina faltagatik.

IKASLERIA ondo sentitzen da irakasleria pozik dagoenean eta klaseko erlazioak lasaiak eta istilurik gabeak direnean. Taldeka lan egitea gustatzen zaie, batez ere, lagunekin suertatzen zaienean eta zarata, zigorrak eta patiorik gabe geratzea ez zaie gustatzen, halaber, beste ikasleek jotzen edo iraitzen badituzte irakasleek kasu egitea nahi dute. Goiko mailetako ikasleei eskolako erabakietan parte hartzea gustatzen zaie eta laguntzea irteeretan eta eskolako jaietan ikasle txikiei.

JANTOKIKO MONITOREEK irakasleria, familiak eta haien artean elkarrizketa arina izatea beharrezkoa ikusten dute, horrela agertu ahal diren arazoak ahalik eta lasterren ebazteko. Halaber, beharrezkoa ikusten dute ikasleekin emozioak eta sentimenduak lantzea gatazka egoerak ekiditeko eta jantokiko begi bistako leku batean ados- toki bat jartzearen aldekoak dira.

IRAKASLERIAK esaten du, orokorrean, gauzak ahalik eta hoberen egiten ari direla eta geletan etengabeko lana egiten ari dela elkarbizitza, baterako hezkuntza, errespetua eta elkar laguntza lantzeko. Informazio jaso maila ona da, baina hausnarketa egiteko eta adostutako erabakiak hartzeko denbora gutxi badagoela ziurtatzen da. Azken horren arrazoia egunerokotasunak suposatzen duen denbora eta energia beharragatik. Gai hauetan prestakuntza jarraitua edukitzea beharrezkoa ikusten da (gatazken ebazpena, adimen emozionala...) eta auto-ezagutza eta auto-estimua tailerretan ikasleriarekin batera parte-hartzea eskertzen da.

2.1. Sendotasunak

Estamentu desberdinen informazioa jaso ondoren eta aurreko ikasturteetako bilduta dagoen dokumentazioa, gehi gure gaur egungo errealitatea kontuan hartuta, ziurta dezakegu gure eskolan badauzkagula finkatuta akordio eta jarduera batzuk:

KOMUNIKAZIOA Y PARTAIDETZA:

1. Informazio arina Pedagogia Batzordetik zikloetara (asteazkenero).
2. Gmail postaren bidez, irakasleria eskolako kanpoko eta barruko informazioen jakitun dago.
3. Familiekin posta elektronikoaren bidez dagoen komunikazioa egunerokotasunean sortzen diren edozein motatako egoerak tratatzeko.
4. Eskolako jantokian gertatzen denaren informazioa eta gertaera desberdinen aurrean hartu diren neurriak.
5. Ikasketa Buruaren hileroko topaketak ikasleen ordezkariekin gai desberdinei buruz hitz egiteko.

PREBENTZIOA ETA GATAZKEN EBAZPENA:

6. Elkarbizitzaren Behatokia sortu eta horren aurrera egin beharreko bilerak.
7. Geletan landu "Gatazken ebazpena" eta "Adostokien" kokapena.
8. Astero tutoretza lana egin.
9. Hezkidetzeta Plana.

AKORDIOAK ETA ARAUAK:

10. IHP, AJA, eta Elkarbizitza eta Eskola-diziplina dokumentua sortu (dokumentu hau landu zen 3. Zikloko ikasleen parte-hartzeaz)
11. Patiorako Arauak biltzen duen dokumentua.

2.3. Hobetzeko eremuak

Bildutako informazioa kontuan hartuta, hurrengoak izango dira hobetu beharreko eremuak estamentu guztien artean lortzeko izatea, izan nahi dugun hezkuntza zentroa, gure IHPan idatzita agertzen eran:

KOMUNIKAZIOA Y PARTAIDETZA:

1. Dokumentu arina, maneiatzeko erraza eta samurra falta da. Dokumentu horretan bilduta agertu beharko zituzten estamentu desberdinen arteko komunikaziorako eskolak zehaztuta dituen akordio guztiak.
2. Halaber, bileren eraginkortasuna hobetu behar dugu irakasleriaren partaidetza akordioetara heltzeko bermatuta geratzeko eta bultzatzeko.

PREBENTZIOA ETA GATAZKEN EBAZPENEA:

3. Guztien kontzientzian dago prestakuntzaren beharra gai batzuetan: Adimen emozionala, asertibitatea, gatazken prebentzioa eta ebazpena,... Prestakuntza beharrezkoa da bai irakasleentzat, bai ikasleentzat eskolak "elkarbizitzarako eremu globalaren" alde egindako apustua idatziz adierazteko.
- 4- Gatazken aurrean jokatzeko protokolo baten beharra ikusten da. Gatazka tratatu nahi dugu ikasteko aukera moduan eta oinarritu nahi dugu diziplina positiboaren kontzeptuan.
5. Ikasleen artean ahozko bortizkeria ziurtatzen dugu, eta horri aurre egin nahi diogu ahal dugun neurrian.

AKORDIOAK ETA ARAUAK:

6. Eskolako dokumenturik garrantzitsuenak (IHP, AJA,...) gutxi erabiltzen direla eta ez direla dokumentu biziak ziurtatzen dugu. Patiorako arauen dokumentua, berriz, erabilgarria da eta gela guztietan eskura dago.

3. Elkarbizitza Planaren Helburuak

Jasotako informazioa kontuan hartuta eta estamentu bakoitzak proposatutako hobetzeko arloetan oinarrituta, eskola elkarbizitzaren eremuan hurrengo hiru urteetan planteatzen den helburuak hauek izango dira:

1. Eskolako estamentu guztiak Komunikatzeko eta Parte Hartzeko dokumentu bat sortzea.
2. Gai desberdinetan prestakuntza jasotzea (Adimen emozionala, asertibitatea, gatazken ebazpena, auto - estimazioa, ...) horren bitartez laguntzeko estamentu guztiek eskura edukitzen mota batzuetako errekurtsioak: intelektualak, emozionalak eta operatiboak taldeko erlazioen arazoei, desakordioei eta gatazka egoerei aurre egiteko.
3. Eskolako filosofia islatzen duen Elkarbizitza marko globala adostea eta gatazken eraldaketarako curriculum batean agertzea.
4. AJA eguneratzea eta eskolako elkarbizitza arautzen duen agiria gehitzea. Dokumentu hau eskolako eguneroko funtzionamendurako erreferente bihurtzea.

5. Denbormalizazioa

Gure ideia da, helburu guztiak aldi berean lantzea eta edukiak eta jarduerak lanaren erritmoaren arabera programatzea.

Aurrean azaldutakoan lanekin batera agertu ahal diren beharren arabera, aldakorra izan ahal den denbormalizazioa biltzen da. Ikasturte bakoitzeko Memorian jarduera bakoitzeko denbormalizazioa idatziko dugu, eta hurrengo ikasturterako beharrezkoak diren aldaketak prestatuko ditugu.

6. Ebaluazioa eta hobetzeko proposamenak

Ikasturte bakoitzaren amaierako Memorian datuen bilketarako sortu ditugun fitxetan adieraziko ditugu arlo hauek: landutako edukiak, edukien garapenerako egindako jarduerak, horien denbormalizazioa eta garapenaren maila. Horretaz aparte, arrakasta mailari dagokion ebaluazioa egingo dugu arlo hauek kontuan hartuta: Parte hartzea, eta amaierako emaitza, aurreikusitako lorpenen adierazleei begira.

Emaitzak ez badira espero genituenak edo kontuan hartu ez ditugun aldagai berriak agertzen badira, hobetzeko proposamenak bilatuko ditugu lana bizkorragoa eta sistematikoagoa egiteko helburuarekin, horrela, aukera izango dugu, lana gogobetetasun eta arrakasta handiagoz jorratzeko gure eskolako "Elkarbizitza".